comprobaciones y consultas necesarias de los datos que obren en poder de la Administración.

En concreto, se podrá interoperar: el empadronamiento, y el “Informe de vida laboral” expedido por la Seguridad Social.

23. oinarria. *Eskabidea zuzentzea edo hobetzea.*

Base 23. *Subsanación o mejora de la solicitud.*

1. Eskabideak elektronikoki formalizatzen ez badira, ezarritako estandarrak eta formatuak betetzen ez badira, baldintza guztiak betetzen ez badira edo foru dekretu honetan eskatutako dokumenturen bat falta bada, interesdunari hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko zaio, halaber, horrela egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, eta eskaera artxibatu egingo dela, dagokion ebazpena eman ondoren.

1. Si las solicitudes no se formalizaran electrónicamente, no cumplieran los estándares y formatos fijados, no se cumplimentaran en todos sus términos o faltara alguno de los documentos exigidos por el presente decreto foral, se requerirá a la interesada, para que en el plazo de diez (10) días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se la tendrá por desistida de en su petición, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

2. Nolanahi ere, Enplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasun Sailak beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta/edo informazio osagarri guztia eskatu ahal izango dio erakunde eskatzaileari, aurkeztutako eskaera behar bezala ulertu, ebaluatu eta jarraitzeko, saileko langileek bisitak egitea barne.

2. En todo caso, el Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad podrá requerir a la entidad solicitante cuanta documentación y/o información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión, evaluación y seguimiento de la solicitud presentada, incluida la realización de visitas por el personal del departamento.

24. oinarria. *Emateko prozedura.*

Base 24. *Procedimiento de concesión.*

1. Dirulaguntzak norgehiagoka-prozeduraren bidez emango dira, 1., 2. eta 3. arloen kasuan

1. En las áreas 1, 2, y 3 el procedimiento de concesión de las subvenciones se tramitará en régimen de concurrencia competitiva.

2. Ondorio horietarako, lehiatzat hartuko da dirulaguntzak emateko aurkeztutako eskabideak alderatzeko prozedura, horien arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko, balorazio-irizpideen arabera, eta, deialdi honetan kreditu erabilgarriaren barruan ezarritako mugarekin, irizpide horiek

2. A estos efectos tendrá la consideración de concurrencia competitiva el procedimiento por el cual la concesión de las subvenciones se realiza mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas de acuerdo a los criterios de valoración, y adjudicar, con el límite





aplikatuta baloraziorik handiena lortu dutenak esleitzeko.

3. Halere, 1. arloko dirulaguntzen kasuan, kreditu baliagarriaren hainbanaketa aplikatuko da dirulaguntzaren entitate onuradunen artean, honela:

Hainbanaketa lortzeko, 5. oinarriko 2. paragrafoa aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa hartuko da oinarritzat, eta kopuru horri "B" deituko zaio. Erakunde onuradun bakoitzeko, "B" bider 25. oinarriko 1. ataleko balorazio-irizpideak aplikatuta lortutako puntuazioa egingo da, eta ateratzen den zenbatekoari "C" deituko zaio.

Hainbanaketa honela aplikatuko da: "C" bider kreditu erabilgarriaren gehieneko zenbatekoa zati "C" zenbateko guztien batura, "B" muga eta 5. oinarrian ezarritako 80.000 euroko gehieneko muga kontuan hartuta.

4. 2. arloaren kasuan, lehen deialdia 15. oinarrian aipatutako aurrekontu-baliagarritasunaren gehiengoaren gainean egingo da. Ondorengo deialdia erabilgarri dagoen zenbatekoarekin egingo da, hau da, aurreko deialdian esleitu ez den zenbatekoarekin.

Deialdi bakoitzean, hala erabakitzen den aurrekontu-mugarekin, 25. oinarrian jasotako balorazio-irizpideak aplikatuz eskabideek lortu duten balorazio handiagoaren arabera esleitu da."

25. oinarria. *Eskabideak baloratzeko-irizpideak.*

1. 1. arloari dagozkion eskabideak irizpide eta haztaper hauen arabera baloratuko dira:

fijado en esta convocatoria dentro del crédito disponible, aquellas que hayan obtenido mayor valoración en aplicación de dichos criterios.

3. No obstante, para las subvenciones relativas al área 1 se aplicará el prorrateo, entre las entidades beneficiarias de la subvención, del crédito disponible, del siguiente modo:

Para la obtención del prorrateo se tomará como base la cuantía resultante de la aplicación del apartado 2 de la base 5, cantidad que se denominará "B". Por cada entidad beneficiaria se multiplicará "B" por la puntuación obtenida en aplicación de los criterios de valoración apartado 1º de la base 25, la cantidad que resulte se denominará "C".

El prorrateo se aplicará en función del resultado de multiplicar "C" por la cuantía máxima de crédito disponible dividido entre la suma del total de las cuantías "C", con el límite de "B" y el máximo de 80.000 euros establecido en la base 5.

4. En el caso del área 2, la primera convocatoria se realizará sobre el máximo de la disponibilidad presupuestaria indicada en la base 15. La posterior convocatoria se realizará con el importe disponible, es decir, no adjudicado en la convocatoria precedente.

En cada convocatoria se adjudicará, con el límite presupuestario que así se determine, en función de la mayor valoración que las solicitudes hayan obtenido en aplicación de los criterios de valoración de la base 25.

Base 25. *Criterios de valoración de las solicitudes.*

1. Las solicitudes del área 1 se valorarán en función de los siguientes criterios y ponderación:





a) Eskabidearen zehaztasun-maila, kalitatea, edukia, aurkezpena eta eraginkortasuna. Gehienez, 5 puntu.

Irizpide hori baloratzeko, entitate eskatzaileak txosten bat aurkeztu beharko du, eta, bertan, gutxienez honako hauek jasotzeko beharko ditu:

1. Proposatutako ekintzaren egokitasuna justifikatzeko arrazoiak (2 puntu).
2. Sustatzaileen hartze-prozesuaren, profilaren eta aukeraketaren deskripzioa (puntu 1).
3. Negozio-plana egiteko aplikatutako metodologia, eduki bakoitzaren eta eduki horien iraupenen arabera (puntu 2).

b) Aurkeztutako jarduera-planak entitate eskatzailearen helburu, ildo eta jardueretik duen koherentzia. Gehienez, 5 puntu.

c) 2024ko uztailaren 29tik 2025eko uztailaren 30era bitartean zenbat proiektu aholkatu dituen entitate eskatzaileak eta zenbat jarri diren abian. Gehienez, 15 puntu.

Entitate eskatzaileak proiektu bat aholkatu duela ulertzeko, 22.3.a) oinarrian aipatzen den egiaztagiria (aholkularitza-orduen egiaztagiria) aurkeztu behar da, bai eta negozio-plana ere. Plana noiz egin den eta entitate eskatzailearen logotipoa agertu behar da.

Irizpide honen kalkulua egiteko, 0,5 puntu emango dira aldi horretan aholkatu den eta abian jarri den proiektu bakoitzeko.

Dekretu honen ondorioetarako, proiektu bat abian jartzea jotzen da proiektuari alta ematea jarduera ekonomikoaren batean, edo, jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren pean ez dauden jardueren dagokienez, autonomoen araubidean edo beste araubide bereziren batean ematea alta.

d) 2024ko uztailaren 29tik 2025eko uztailaren 30era bitartean entitate eskatzaileak aholkatutako eta abian jarritako proiektuen sustatzaileak bazterkeria-arriskuan dauden

a) El grado de definición, calidad, contenido, presentación y eficiencia de la solicitud. Puntuación máxima 5 puntos.

Para valorar este criterio la entidad solicitante presentará un informe que deberá contener al menos los siguientes puntos:

- 1.º Razones por las que se justifica la idoneidad de la acción propuesta (2 puntos).
- 2.º Descripción de la captación, perfil y selección de las personas promotoras (1 punto).
- 3.º Metodología aplicada para la realización del plan de negocio, por cada uno de los contenidos, y duración de los mismos (2 puntos).

b) La coherencia del plan de actuación presentado con los objetivos, líneas y acciones de la entidad solicitante. Puntuación máxima 5 puntos.

c) El número de proyectos asesorados por la entidad solicitante y puestos en marcha en el periodo comprendido entre el 29 de julio 2024 y el 30 de julio de 2025. Puntuación máxima 15 puntos.

Se considerará que un proyecto ha sido asesorado por la entidad solicitante cuando se aporte el “Certificado de horas de asesoramiento” acreditativo contemplado en la base 22.3.a), así como el plan de negocio con la fecha de realización del mismo y el logotipo de la entidad solicitante.

Para el cálculo de este criterio se otorgará 0,5 puntos por cada proyecto asesorado y puesto en marcha dicho periodo.

A los efectos de este decreto se entiende como puesta en marcha de un proyecto el alta del mismo en una actividad económica, o en el caso de actividades no sujetas al Impuesto de Actividades Económicas el alta en el régimen de autónomos u otros regímenes especiales.

d) La pertenencia de las personas promotoras de los proyectos asesorados y puestos en marcha por la entidad solicitante en el periodo comprendido entre el 29 de julio de 2024 y el





pertsonen kolektibokoak izatea proiektua abian jartzen den egunean.

Balorazio-irizpide hori kalkulatzeko, aurretik aipatutako betekizunak betetzen dituen sustatzaile bakoitzeko 0.5 puntu emango dira. Nolanahi ere, entitate onuradun bakoitzeko, puntuazioa ezin da izan 10 puntutik gorakoa.

Pertsona sustatzaileak kolektibo batean baino gehiago sartu ahal badira ere, kolektibo horietako batean sartzeagatik baino ezin izango dira baloratu.

e) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken edo jarduketaren garapenean entitate eskatzaileak izan duen ibilbidea. 4 punturekin baloratuko da enpresa-proiektuak abian jartzeari begirako aholkularitza-arloan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak edo jarduketak gauzatu izana 2024. eta 2025. urteetan.

f) Bizkaiko eskualdeetan edozein era juridikoren bidez "Centro de Empleo y Desarrollo Local Behargintza" / "Behargintza, Enplegu eta Tokiko Garapenerako Zentroa" osatzen duten entitate eskatzaileek, beren jarduketa-eremuak 25.000 biztanletik beherako udalerririk hartzen baditu, 5 puntuko puntuazioa lortuko dute.

g) Berdinketa gertatzen bada, eskatzaileen arteko ordena lehentasun-irizpide hauen arabera erabakiko da:

1. Oinarri honetako 2. apartatuko c) irizpidean puntuaziorik handiena lortu dutenak.
2. Oinarri honetako 2. apartatuko d) irizpidean puntuaziorik handiena lortu dutenak.
3. Eskabideak Enplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasun bulego birtualeko sarrera-erregistroan izan duen lehentasuneko hurrenkera.

30 de julio de 2025 al colectivo de personas en riesgo de exclusión, en la fecha de puesta en marcha del proyecto.

Para el cálculo de este criterio de valoración, se otorgará por cada persona promotora que cumpla con los requisitos expuestos anteriormente 0,5 puntos. En cualquier caso, la puntuación máxima por entidad beneficiaria no superará los 10 puntos.

Las personas promotoras, independientemente de que puedan encuadrarse en más de un colectivo, únicamente podrán ser valoradas por su inclusión en uno de ellos.

e) La trayectoria de la entidad solicitante en el desarrollo de las políticas o actuaciones dirigidas a la igualdad de mujeres y hombres. Se valorará con 4 puntos el desarrollo de políticas o actuaciones dirigidas a la igualdad de mujeres y hombres en materia de asesoramiento para la puesta en marcha de proyectos empresariales durante los años 2024 y 2025.

f) Las entidades solicitantes de subvención que bajo cualquier forma jurídica constituyan "Centro de Empleo y Desarrollo Local Behargintza" / "Behargintza, Enplegu eta tokiko garapenerako zentroa" en las comarcas de Bizkaia y su ámbito de actuación abarque municipios con una población inferior a 25.000 habitantes, obtendrán una puntuación de 5 puntos.

g) En caso de empate, el orden se establecerá atendiendo a los siguientes criterios de prioridad:

- 1º Quienes hayan obtenido mayor puntuación en el criterio c) del apartado 2 de esta base.
- 2º Quienes hayan obtenido mayor puntuación en el criterio d) del apartado 2 de esta base.
- 3º Orden prioritario de registro de entrada de la solicitud en la oficina virtual de Empleo Cohesión Social e Igualdad.

2. 2. arloari dagozkion eskabideak beherago adierazitako irizpideen arabera baloratuko dira,

2. Las solicitudes del área 2 se valorarán en función de los siguientes criterios, que irán





eta 9. oinarriko 1. eta 2. apartatuetako baldintzak betetzen dituen sustatzaileari buruzkoak izango dira.

Baldintzak eta balorazio-irizpideak betetzeari dagokionez, dirulaguntza eskatu duen entitateak ekonomia-jardueretan alta eman duen data hartuko da erreferentziazat.

Balorazio-irizpideak:

a) Langabezian egindako denbora.

Irizpide hau kalkulatzeko, honelaxe puntuatuko da:

1. Urtebetetik beherako langabezia-egoera: puntu 1.

2. Urtebeteko edo hortik gorako eta bi urtetik beherako langabezia-egoera: 3 puntu.

3. Urte biko edo hortik gorako langabezia-egoera: 5 puntu.

b) Sustatzailea bazterkeria-egoeran dauden taldeetako batekoa izatea, 2. oinarriko 1. atalean zehaztutakoak hartuko dira halakotzat.

Irizpide hau kalkulatzeko, irizpide hau honelaxe puntuatuko da:

1. Sustatzailea bazterkeria-egoeran dagoen talde batekoa izatea: 3 puntu

2. Sustatzailea ez izatea bazterkeria-egoeran dagoen talde batekoa: 0 puntu

c) Sustatzailearen adina. Irizpide hori kalkulatzeko, puntuak honela emango dira:

1. 30 urte arteko gaztea, jarduera ekonomikoen alta-data barne dela: 3 puntu.

2. 45 urtetik gorako pertsona, hau da, 45 urteak beteak dituen jarduera ekonomikoaren alta-datan: 5 puntu.

3. 50 urtetik gorako pertsona, hau da, 50 urteak beteak dituen jarduera ekonomikoaren alta-datarako: 7 puntu.

referidos a la persona promotora que cumpla los requisitos de los apartados 1 y 2 de la base 9.

Se tomará como referencia, a efectos del cumplimiento de los requisitos y criterios de valoración, la fecha del alta en actividades económicas de la entidad que solicita subvención.

Criterios de valoración:

a) Tiempo en situación de desempleo.

Para el cálculo de este criterio se puntuará:

1.º Situación de desempleo inferior a un año: 1 punto.

2.º Situación de desempleo igual o superior a un año e inferior a dos años: 3 puntos.

3.º Situación de desempleo igual o superior a dos años: 5 puntos.

b) Pertenencia de la persona promotora a colectivos en situación de exclusión, entendiéndose por tales los detallados en la base 2 apartado 1.

Para el cálculo de este criterio se puntuará:

1.º Pertenencia de la persona promotora al colectivo en situación de exclusión: 3 puntos.

2.º No pertenencia de la persona promotora al colectivo en situación de exclusión: 0 puntos.

c) La edad de la persona promotora, para el cálculo de este criterio se puntuará:

1.º Persona joven hasta 30 años inclusive a la fecha de alta de actividades económicas: 3 puntos.

2.º Persona mayor de 45 años, es decir, que haya cumplido 45 años a la fecha de alta de la actividad económica: 5 puntos.

3.º Persona mayor de 50 años, es decir, que haya cumplido 50 años a la fecha de alta de la actividad económica: 7 puntos.





d) Entitate onuradunaren zerga-egoitza dagoen udalerrian erregistratutako langabezia-indizea.

Irizpide hori kalkulatzeko, udalerriaren erregistratutako langabezia-indizea hartuko da kontuan, l. eranskinaren arabera -2025eko irailean- (iturria: Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzua). Eta puntu hauek emango dira:

1. %6ko langabezia-tasa edo txikiagoa: puntu 1.
2. %6tik gorako eta %10tik beherako langabezia-tasa: 2 puntu.
3. %10ko edo hortik gorako langabezia-tasa: 3 puntu.

Horretarako, l. eranskinean langabezia-indizea duten udalerrien zerrenda ematen da.

e) Entitateak gauzatzen duen jarduera ekonomikoa kontuan izanda, kasu hauetan 10 puntuko gehieneko puntuazioa lortuko da:

1.a Jarduera ekonomikoa honako jarduera-arlo hauetako bati baldin badagokio: industria, zaintzaren ekonomia, ingurumen-jasangarritasuna. Arlo horien parte izateagatik 5 puntu emango dira, guztira.

2.a Izaera berritzailea duten jarduerak, edota ekonomia, gizarte eta ingurumen arloetan inpaktu-ekintzaitza proposatzen dutenak. Arlo horien parte izateak 5 puntu emango ditu guztira.

3.a Irizpide honetan 0 puntu lortuko dituzte beren jarduera aurreko paragrafoetan azaldutakoen artean ez duten entitateek, eta, edonola ere, entitatea alta emanda dagoen jarduera ekonomikoak lotura zuzenik ez duenean negozio-planarekin.

f) Dirulaguntzaren enpresa onuradunaren forma juridikoa. Irizpide hori kalkulatzeko honela puntuatuko da gizarte-ekonomiako

d) Índice de paro registrado en el municipio donde se encuentre el domicilio fiscal de la entidad beneficiaria.

Para el cálculo de este criterio se tendrá en cuenta el Índice de paro registrado por municipios, según anexo I, a septiembre de 2025 (fuente Lanbide, Servicio Vasco de Empleo). Y se puntuará:

- 1.º Índice de paro igual o inferior al 6%: 1 punto.
- 2.º Índice de paro superior al 6% e inferior al 10%: 2 puntos.
- 3.º Índice de paro igual o superior al 10%: 3 puntos.

A tal fin se proporciona en el anexo I relación de municipios con su índice de paro.

e) Atendiendo al tipo de Actividad Económica que desarrolle la entidad. Se obtendrá la puntuación máxima de 10 puntos en los siguientes casos:

1.º Si la actividad económica que desarrolla la entidad pertenece, a una de las siguientes áreas de actividad: Industria; Economía de los cuidados; Sostenibilidad medioambiental. La pertenencia a dichas áreas otorgará un total de 5 puntos.

2.º Las actividades que bien tengan un carácter innovador o bien propongan un emprendimiento de impacto en términos económicos, sociales y medio ambientales. La pertenencia a dichas áreas otorgará un total de 5 puntos.

3.º Obtendrán valoración de 0 puntos en este criterio, las entidades cuya actividad no pertenezca a ninguna de las detalladas en los dos apartados anteriores; y, en todo caso, cuando la actividad económica en la que esté dada de alta la entidad no está directamente relacionada con el plan de negocio.

f) Forma jurídica de la empresa beneficiaria de la subvención. Para el cálculo de este criterio se puntuará en el caso de empresas de economía





enpresak direnean: kooperatibak edo lan-sozietateak, 5 puntu, eta gainerako kasuetan, 0 puntu.

g) 2025. eta 2026. urteetan Barakaldoko DEMA Enpresa Garapenak sustatutako Anezka eta/edo Taldeka programetan eta/edo enpleguaren arloko prestakuntza-programa mistoetan parte hartu duten eta ondo gainditu dituzten pertsonak.

Inguruabar hori Barakaldoko DEMA Enpresa Garapenak emandako ziurtagiri baten bidez egiaztatuko da. 3 puntu eskuratuko dituzte, eraturako entitate bakoitzeko eta dirulaguntzaren eskatzaile bakoitzeko.

h) Behin eskaera guztiak baloratu eta gero, entitate onuradunen zerrenda egingo da, puntuazioaren ordenaren arabera, handienetik txikienera. Entitate batzuek puntuazio berdina lortzen badute, hurrenkera espedienteak dokumentazio guztia duen dataren arabera finkatuko da.

3. oinarria. 3. eskabideak baloratzeko irizpideak.

Aurkeztutako eskabideak baloratzeko eta dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko dira hurrengo balorazio-irizpideak; izan ere, irizpide horiek ezarriko zaizkio 13. oinarriko 1., 2. eta 3. apartatueta baldintzak betetzen dituen eskuratzailari.

Balorazio-irizpideak eta betekizunak betetzeko ondorioetarako erreferentzia gisa hartuko da ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan izandako titulartasun-aldaketaren data, 11. oinarriko 1.a) apartatuan ezarritako eskualdaketen kasuan; eta dirulaguntza eskatu duen entitatearen JEZeko altaren data, 11. oinarriko 1.b) apartatuan ezarritako negozio-eskualdaketen kasuan.

social: cooperativas o sociedades laborales, 5 puntos, y en el resto de los supuestos 0 puntos.

g) Las personas que hayan participado y superado de forma satisfactoria, al amparo de las bases reguladoras correspondientes, el programa Anezka y/o Taldeka, y/o programas mixtos de formación empleo liderados por DEMA Enpresa Garapena de Barakaldo, durante los años 2025 y 2026.

Dicha circunstancia se acreditará mediante un certificado emitido por DEMA Enpresa Garapena de Barakaldo. Se obtendrá una puntuación por entidad constituida y solicitante de subvención de 3 puntos.

h) Una vez valoradas todas las solicitudes se elaborará una lista con la relación de entidades beneficiarias por orden de puntuación de mayor a menor. Las entidades que obtengan igual puntuación tendrán orden de preferencia en la misma en función de la fecha en la que el expediente contenga la documentación completa.

3. Criterios de valoración de las solicitudes del área 3.

Para valorar las solicitudes presentadas y determinar la cuantía de la subvención se tendrán en cuenta los siguientes criterios de valoración que irán referidos a la persona adquirente que cumpla los requisitos de los apartados 1, 2 y 3 de la base 13.

Se tomará como referencia a efectos del cumplimiento de los requisitos y criterios de valoración, la fecha de cambio de titularidad en Impuesto de Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados para aquellos casos contemplados en el apartado 1.a) de la base 11 y para los traspasos de negocio, previstos en el apartado 1.b) de la base 11, la fecha de alta en el IAE de la entidad que solicita subvención.





Balorazio-irizpideak:

a) Langabezia-egoerako denbora.

Irizpide hau kalkulatzeko, irizpide hau honelaxe puntuatuko da:

- 1.a Urtebetetik beherako langabezia-egoera: puntu 1.
- 2.a Urtebeteko edo hortik gorako eta bi urtetik beherako langabezia-egoera: 3 puntu.
- 3.a Urte biko edo hortik gorako langabezia-egoera: 5 puntu.

b) Bazkidearen adina. Irizpide hori kalkulatzeko, puntuak honela emango dira:

- 1.a 30 urte arteko gaztea, jarduera ekonomikoen alta-data barne dela: 3 puntu
- 2.a 45 urtetik gorako pertsona, hau da, 45 urteak beteak dituen jarduera ekonomikoaren alta-datan: 5 puntu.
- 3.a 50 urtetik gorako pertsona, hau da, 50 urteak beteak dituen jarduera ekonomikoaren alta-datarako: 7 puntu.

c) Entitate onuradunaren zerga-egoitza dagoen udalerrian erregistratutako langabezia-indizea.

Irizpide hori kalkulatzeko, kontuan hartuko da 2025eko irailean udalerrri bakoitzean erregistratutako langabezia-indizea (iturria: Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzua). Eta puntu hauek emango dira:

- 1.a % 6ko langabezia-tasa edo txikiagoa: puntu 1.
- 2.a % 6tik gorako eta % 10tik beherako langabezia-tasa: 2 puntu.
- 3.a % 10ko edo hortik gorako langabezia-tasa: 3 puntu.

Horretarako, l. eranskinean ematen dira udalerrien zerrenda eta haietako bakoitzari

Criteria de valoración:

a) Tiempo en situación de desempleo.

Para el cálculo de este criterio se puntuará:

- 1.º Situación de desempleo inferior a un año: 1 punto.
- 2.º Situación de desempleo igual o superior a un año e inferior a dos años: 3 puntos.
- 3.º Situación de desempleo igual o superior a dos años: 5 puntos.

b) La edad de la persona socia, para el cálculo de este criterio se puntuará:

- 1.º Persona joven hasta 30 años inclusive: 3 puntos.
- 2.º Persona mayor de 45 años, es decir, que haya cumplido 45 años: 5 puntos.
- 3.º Persona mayor de 50 años, es decir, que haya cumplido 50 años: 7 puntos.

c) Índice de paro registrado en el municipio donde se encuentre el domicilio fiscal de la entidad beneficiaria.

Para el cálculo de este criterio se tendrá en cuenta el Índice de paro registrado por municipio a septiembre de 2025 (fuente Lanbide, Servicio Vasco de Empleo). Y se puntuará:

- 1.º Índice de paro igual o inferior al 6%: 1 punto.
- 2.º Índice de paro superior al 6% e inferior al 10%: 2 puntos.
- 3.º Índice de paro igual o superior al 10%: 3 puntos.

A tal fin se proporciona en el anexo I relación de municipios con la puntuación otorgada a cada uno de ellos en función del índice de paro.





langabezia-indizearen arabera emandako puntuazioa.

d) Dirulaguntzaren enpresa onuradunaren forma juridikoaren irizpidea honela puntuatuko da gizarte-ekonomiako enpresak direnean: kooperatibak edo lan-sozietateak, 5 puntu, eta gainerako kasuak, 0 puntu.

e) Zenbat langile dituen enpresa eskuratzailerak, bazkide langileak barne hartua:

2 pertsonara arte : 1 puntu.

3 eta 5 pertsonaren artean : 3 puntu.

5 pertsona baino gehiago : 5 puntu.

f) Transmittitu edo eskualdatutako negozioa 5.000 biztanletik beherako Bizkaiko udalerrri batean badago: 5 puntu.

g) Transmittitzen den enpresako langileak badira eskuratzailerak, eskualdaketaren aurre-aurreko unean: 10 puntu.

Behin eskaera guztiak baloratu eta gero, entitate onuradunen zerrenda egingo da, puntuazioaren ordenaren arabera, handienetik txikienera. Entitate batzuek puntuazio berdina lortzen badute, hurrenkera espedienteak dokumentazio guztia duen dataren arabera finkatuko da.

26. oinarria. Ebazpena.

Instrukzio-organoak ebaluatuko ditu eskabideak, eta, zerga- eta tributubetebeharrak betetzen direla egiaztatu ondoren, deialdien ebazpen-proposamenak aurkeztuko dizkio Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko forudiputatuari.

1. Eskabideak ebazpen bakar baten bidez ebartziko dira arlo bakoitzeko (1., 2. eta 3.

d) Forma jurídica de la empresa beneficiaria de la subvención, para el cálculo de este criterio se puntuará en el caso de empresas de economía social: cooperativas o sociedades laborales, 5 puntos, y en el resto de los supuestos, 0 puntos.

e) Número de personas trabajadoras en la empresa adquirente, incluidas las personas socias:

Hasta 2 personas: 1 punto.

Entre 3 y 5 personas: 3 puntos.

Más de 5 personas: 5 puntos.

f) Si el negocio que se transmite o traspasa está ubicado en municipios de Bizkaia con menos de 5.000 habitantes, se valorará con 5 puntos.

g) Si las personas trabajadoras de la empresa que se transmite son las adquirentes de la misma en el momento inmediatamente anterior a la transmisión, se valorará con 10 puntos.

Una vez valoradas todas las solicitudes se elaborará una lista con la relación de entidades beneficiarias por orden de puntuación de mayor a menor. Las entidades que obtengan igual puntuación tendrán orden de preferencia en la misma en función de la fecha en la que el expediente contenga la documentación completa.

Base 26. Resolución.

Las solicitudes serán evaluadas por el órgano instructor el cual previa comprobación del cumplimiento de las obligaciones fiscales y tributarias elevará a la diputada foral del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad las propuestas de resolución de las convocatorias.

1. Las solicitudes se resolverán mediante una única resolución por cada área 1, 2 y 3, en la que





arloak). Ebazpen horretan, 5/2005 Foru Arauaren 23. artikulua arabera, dirulaguntza jaso duten erakundeek zerrenda adieraziko da, eta, hala badagokio, bakoitzari aurreikusitako balorazio-irizpideen arabera emandako puntuazioa adieraziko da. Halaber, hala badagokio, berariaz adieraziko da zergatik ezetsi diren gainerako eskabideak, bai eta zergatik ez diren eman ere.

Eskatutako dirulaguntza emateko, ezesteko edo ez emateko ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie.

2. Dirulaguntza ematen duen foru agindua jakinarazita, 39/2015 Legearen 40. eta 43. artikuluekin bat, hamar (10) eguneko epea emango da dirulaguntza onartzeko, eta epe horretan ez bada espresuki ezer adierazten, isiltasunez onartutzat joko da.

3. Prozeduraren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera. Epe hori igaro eta ebazpenik jakinarazi ez bada, eskabidea ezetsitatzat joko da administrazio-isiltasunez.

27. oinarria. Errekurtsoak.

1. Ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango zaio Enplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasun Saileko titularrari, hilabeteko (1) epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, 39/2015 Legeak ezartzen duen moduan.

2. Halaber, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke, Administrazioarekiko Auzietarako dagokion Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien

se expresará conforme al artículo 23 de la Norma Foral 5/2005, la relación de entidades a las que se concede la subvención, con indicación en su caso de la puntuación otorgada a cada una de ellas en función de los criterios de valoración previstos y se hará constar, en su caso, de manera expresa los motivos de la desestimación del resto de las solicitudes, así como la no concesión.

La resolución por la que se proceda a la concesión, desestimación o no concesión de la subvención solicitada se notificará a las personas interesadas.

2. Notificada la orden foral de otorgamiento de la subvención, de acuerdo con los artículos 40 y 43 de la Ley 39/2015, se dispondrá de un plazo de diez (10) días para su aceptación, transcurrido el cual sin haberse producido manifestación expresa se entenderá tácitamente aceptada.

3. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución del procedimiento será de 6 meses desde que finalice el plazo para presentar solicitudes. Transcurrido este plazo sin haberse notificado la resolución, se entenderá desestimada la solicitud por silencio administrativo.

Base 27. Recursos.

1. La resolución agota la vía administrativa, y contra la misma se podrá interponer recurso potestativo de reposición ante la persona titular del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, en el plazo de un (1) mes, a contar desde el día siguiente a aquel en que se reciba la notificación de la misma, en los términos que establece la Ley 39/2015.

2. Así mismo, podrá interponerse recurso contencioso administrativo ante la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente a aquél en que reciba la notificación de la misma, en los





Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritako eran.

3. Ezingo dira errekurtsio biak aldi berean jarri.

28. oinarria. *Dirulaguntzari uko egitea.*

1. 34/2010 Foru Dekretuaren 48.3 artikuluan araututako kasuaren arabera, onuradunen batek dirulaguntzari uko egiten badiu, organo emaileak hurrengo eskatzaileei dirulaguntza ematea erabaki ahal izango du, puntuazioaren arabera, betiere kasuan kasuko eskaerei erantzuteko kreditu nahikoa liberatu bada.

2. Laguntza ematen duen organoak aukera horren berri emango die interesdunei, hamar (10) egun balioduneko epe luzaezinean onar dezaten dirulaguntzaren proposamena. Eskatzaileek proposamena onartu ondoren, administrazio-organismoak emate-egintza emango du eta jakinarazi egingo du.

3. Uko egiteko gehieneko epea hamar (10) egun baliodunekoa izango da, dirulaguntza-proposamena interesdunari jakinarazten zaionetik aurrera.

Epe hori igarotakoan, uko egitea dirulaguntza emateko baldintzak ez betetzetzat joko da.

29. oinarria. *Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea.*

1. Erakunde onuradunak nahitaez jakinarazi behar dio Enplegu Zerbitzuari erakunde adjudikaziodunaren izen sozialari, forma

términos contemplados en la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la jurisdicción contencioso-administrativa.

3. No será posible simultanear ambos recursos.

Base 28. *Renuncia a la subvención.*

1. De acuerdo con el supuesto regulado en el artículo 48.3 del Decreto Foral 34/2010, en caso de renuncia a la subvención de alguna de las personas beneficiarias, el órgano concedente podrá acordar la concesión de la subvención a las personas solicitantes siguientes en orden de puntuación, siempre y cuando se haya liberado crédito suficiente para atender las solicitudes de que se trate.

2. El órgano concedente comunicará esta opción a las personas interesadas, a fin de que acepten la propuesta de subvención en el plazo improrrogable de diez (10) días hábiles. Una vez aceptada la propuesta por las personas solicitantes, el órgano administrativo dictará el acto de concesión y procederá a su notificación.

3. El plazo máximo para poder presentar una renuncia será de diez (10) días hábiles desde la notificación de la propuesta de subvención a la persona interesada.

Transcurrido ese plazo, cualquier renuncia tendrá la consideración de incumplimiento de las condiciones por las que se ha otorgado la subvención.

Base 29. *Modificación de la resolución de concesión.*

1. La entidad beneficiaria tiene la obligación de comunicar al Servicio de Empleo cualquier modificación que afecte a la razón social, a la





juridikoari, bazkideei eta abarrei buruzko edozein aldaketa, bai eta eskabidean adierazitako datuei buruzko edozein gorabehera ere, baldin eta gorabehera horrek funtsean eragin badiezaieke dirulaguntza jasotzeari, eta, hala badagokio, hura eman zeneko jarduera edo helburua gauzatzeari.

Dirulaguntzak emateko orduan kontuan hartutako baldintzak aldatzeak dirulaguntzen emakidari buruzko ebazpena aldatzea ekar dezake, baldin eta dirulaguntzaren helburua eta xedea bete direla uste bada. Halakoetan, forudekretu honetan ezarritako irizpideak eta mugak aplikatuko dira.

2. 2. eta 3. arloetan, dirulaguntza enpresa edo profesional autonomo bati esleitu ondoren, enpresa esleipenduna jarduera ekonomikoa hasi zenetik urtebete igaro baino lehen beste forma juridiko bat bihurtzen bada, dirulaguntza ematearen ondorioz erakunde onuradunak eratzen den enpresa berriari eskuratzen dizkion eskubideak eta betebeharrak subrogatu ahal izango dira.

Subrogazio-eskaera enplegu-bulego birtualaren bidez aurkeztu beharko zaio organo emaileari, "expediente-aldaketa" aukera hautatuta, eta organo horrek, inguruabarrak aztertu ondoren, subrogazio-baimenari buruzko ebazpena eman dezan.

Subrogazioa onartu ondoren, ez da bidezkoa izango lehia-konkurrentzian dirulaguntzak ematea eragin zuten eskabideen lehentasun-hurrenkera berrikustea.

Dirulaguntza justifikatzeko, Gizarte Segurantzak emandako "Kotizazio-oinarrien eta ordaindutako kuoten txostena" aurkeztuko da, bai erakunde onuradunaren izenean, bai subrogatuaren izenean. Subrogatutako enpresak 2. eta 3. arloetako dirulaguntzaren onuradunentzat ezarritako baldintzak bete

forma jurídica, o a la variación de las personas socias, etc., de la entidad adjudicataria, así como cualquier circunstancia o eventualidad relativa a los datos declarados en la solicitud que pueda afectar sustancialmente a la percepción de la subvención, en su caso a la ejecución de la actividad o finalidad para la que se concedió.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entiendan cumplidos la finalidad y objeto de éstas, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión, aplicándose los criterios y límites establecidos en este decreto foral.

2. En el área 2 y área 3, una vez adjudicada la subvención a una empresa o profesional autónomo, si antes del transcurso de un año desde que se inició la actividad económica la empresa adjudicataria, se transforma en otra forma jurídica se permitirá la subrogación de los derechos y deberes que, como consecuencia del otorgamiento de la subvención, adquiere la entidad beneficiaria a la nueva empresa que se constituye.

La solicitud de subrogación deberá ser presentada al órgano concedente mediante la oficina virtual de empleo seleccionando la opción "variación de expediente", para que éste, una vez analizadas las circunstancias concurrentes, resuelva sobre la autorización de la subrogación.

Aprobada la subrogación, no procederá revisar la prelación de solicitudes que dieron lugar al otorgamiento de las subvenciones en concurrencia competitiva

Para la justificación de la subvención, se presentará el "Informe de bases de cotización y cuotas ingresadas" emitido por la Seguridad Social tanto a nombre de la entidad beneficiaria como de la subrogada. La empresa subrogada deberá cumplir los requisitos establecidos para las personas beneficiarias de la subvención del





beharko ditu, eta bera izango da arduraduna Administrazio Publikoaren aurrean, ondorio guztietarako.

30. oinarria. *Emandako dirulaguntzen publizitatea.*

38/2003 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa beteko da, emandako dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean argitaratuz, aipatutako artikuluan xedatutakoaren arabera. Era berean, dirulaguntza eman den urte naturala amaitu ondorengo lehen hiruhilekoa amaitu baino lehen, Enplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasun Sailak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko ditu deialdi publiko honen ondorioetarako emandako dirulaguntzak, deialdia, programa eta egozten zaion aurrekontu-kreditua adieraziz, onuradunaren izena edo sozietate-izena, identifikazio fiskaleko zenbakia, emandako zenbatekoa, dirulaguntzaren xedea edo helburuak, eta, hala badagokio, diruz lagundutako programa edo proiektuak adieraziz. Urte anitzeko dirulaguntzen kasuan, emandako zenbateko osoa eta urtekoen banaketa.

Hori guztia, hargatik eragotzi gabe organo eskudunek Bizkaiko Foru Aldundiaren gardentasun-atarian (Bizkaia Gardena) egiten dituzten argitalpenak, Bizkaiko gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua aplikatuz (aurrerantzean 1/2016 Foru Araua).

31. oinarria. *Erakunde onuradunak emandako dirulaguntzaren zabalkundea.*

1. 5/2005 Foru Arauaren 17.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, dirulaguntza honen

área 2, y área 3, y será la responsable ante la Administración Pública, a todos los efectos.

Base 30. *Publicidad de las subvenciones concedidas.*

Se dará cumplimiento a lo dispuesto en el artículo 20 de la Ley 38/2003, mediante la publicación de las subvenciones concedidas en la Base de Datos Nacional de Subvenciones, según lo dispuesto en el citado artículo. Asimismo, antes del fin del primer trimestre posterior al vencimiento del año natural de concesión de la subvención, el Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad publicará en el «Boletín Oficial de Bizkaia» las subvenciones concedidas a los efectos de esta convocatoria pública con expresión de la convocatoria, el programa y crédito presupuestario al que se imputen, nombre o razón social de la persona beneficiaria con su número de identificación fiscal, cantidad concedida, finalidad o finalidades de la subvención, con expresión, en su caso, de los distintos programas o proyectos subvencionados. En caso de subvenciones plurianuales, importe total concedido y distribución de anualidades.

Todo ello sin perjuicio de las publicaciones que los órganos competentes para ello realicen en el portal de transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, Bizkaia Gardena, en aplicación de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de transparencia de Bizkaia (en adelante Norma Foral 1/2016).

Base 31. *Difusión de la subvención concedida por la entidad beneficiaria.*

1. En cumplimiento de lo previsto en el artículo 17.3 de la Norma Foral 5/2005, las entidades





onuradun diren erakundeek behar bezala jakinarazi behar dute diruz lagundu den jarduera batek finantzaketa publikoa jaso duela. Horretarako, diruz lagundu den ekintza argitara emateko euskarri informatikoetan zein beste edozein euskarritan aditzera eman beharko da ekintza hori Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak finantzatu duela.

Nolanahi ere, erakunde onuradunek aurreko paragrafoan aurreikusitako moduan egin behar dute zabalkundea, Bizkaiko enplegu-atariaren bidez (portaldeempleodebizkaia.eus).

2. Programa honen erakunde onuradunak behartuta daude Enplegua Sustatzeko Zuzendaritzari programaren edukia ikus-onetsi dezala eskatzera baldin eta haren komunikazioa, zabalkundea, informazioa eta publizitatea egiten badute edozein komunikabidetan.

Zehazki, 1. arloan diruz lagundutako jardueretarako, erakunde adjudikaziodunak Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa eta berea sartu behar ditu negozio-plan bakoitzean, bai eta diruz lagundutako ikastarora joan izanaren ziurtagiria eta bideragarritasun-txostena ere.

Halaber, ikastaroei eta aholkularitza-zerbitzuari buruzko publizitatean, Bizkaiko Foru Aldundiaren finantzaketa jaso dela adierazten duen esaldia sartu beharko da. Esaldi hori, hala badagokio, inprimatutako materialetan, baliabide elektronikoetan edo ikus-entzunezkoetan agertu beharko da, bai eta komunikabideetan egindako aipamenetan ere.

3. Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan xedatutakoarekin bat, erakunde onuradunak II. tituluan jasotako publikotasun aktiboari dagokionez adierazitako

beneficiarias de esta subvención deberán dar la adecuada publicidad del carácter público de la financiación de estas actuaciones, por lo que en todos los soportes tanto informáticos como de cualquier otro tipo en los que se publicite la acción subvencionada se deberá indicar que la misma ha sido financiada por el Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia.

En todo caso, las entidades beneficiarias han de realizar la difusión de la forma prevista en el párrafo anterior a través del Portal de empleo de Bizkaia, portaldeempleodebizkaia.eus

2. Las entidades adjudicatarias de este programa vienen obligadas al realizar las acciones de comunicación, difusión, información y publicidad del mismo en cualquier medio de comunicación a solicitar el visado de su contenido por la Dirección General de Empleo.

En concreto, y para las actuaciones subvencionadas en el área 1, se requiere que la entidad adjudicataria incluya el logotipo de la Diputación Foral de Bizkaia, y el suyo propio, en cada plan de negocio, y certificado que se expida con ocasión de la asistencia al curso subvencionado, así como en el informe de viabilidad.

Así mismo, en la publicidad de la realización de los cursos y servicio de asesoramiento habrá de incluirse leyenda que indique la financiación por la Diputación Foral de Bizkaia. Dicha leyenda habrá de aparecer, en su caso en materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales, o bien en menciones realizadas en medios de comunicación.

3. De conformidad con lo regulado en la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, la entidad beneficiaria estará obligada, en su caso, a





betebeharrak bete behar ditu, baldin eta 2. artikuluan jasotako balizkoetako batean badago:

Aurrekontu-ekitaldi baten zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euro edo gehiagoko laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituzten edo urteko diru-sarreraren %40 Aldundiaren laguntzetatik edo dirulaguntzetatik jasotzen duten erakunde pribatuei, betiere gutxienez 5.000 euro badira.

4. Beteko ez balira aurreko arloaldeetan aipatu diren zabalkundeko neurriak, onuradunari errekerimendua egingo litzaioke, ezarritako zabalkundeko neurriak har ditzan 15 eguneko epea amaitu baino lehen, eta ohartaraziko zaio ez-betetze horrek dekretu honen 19. oinarrian eta ondorengoetan xedatutako itzulketarako prozedura hasia ekarriko lukeela.

32. oinarria. Jakinarazpen elektronikoa.

1. Erakunde interesdunei egindako jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, 39/2015 Legean aurreikusitakoaren arabera.

Arlo bakoitzeko deialdien ebazpenen jakinarazpenak izan ezik; halakoak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuz jakinaraziko dira.

2. Bitarteko elektronikoen bidezko jakinarazpenak Bizkaiko Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoan (<https://www.ebizkaia.eus>) agertuz egingo dira, Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 5eko 62/2015 Foru Dekretuan, Administrazio Elektronikoari buruzkoan, eta Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren ekainaren 6ko 4841/2016 Foru Aginduan, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren

cumplir las exigencias de publicidad activa contenidas en su título II, siempre y cuando se encuentre en alguno de los supuestos mencionados en el artículo 2:

Entidades privadas que durante un ejercicio presupuestario perciban de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos una cuantía de 100.000 euros o cuando el 40 por ciento del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen como mínimo 5.000 euros.

4. Si se incumplieran las medidas de difusión previstas en los párrafos precedentes, se requerirá a la persona beneficiaria para que adopte las medidas de difusión establecidas en un plazo no superior a 15 días, con advertencia de que dicho incumplimiento producirá el inicio del procedimiento de reintegro previsto en el Base 19 y siguientes.

Base 32. Notificación electrónica.

1. Las notificaciones realizadas a las entidades interesadas se realizarán por medios electrónicos, de acuerdo con lo previsto en la Ley 39/2015.

Salvo las notificaciones de las resoluciones de las convocatorias de cada área, que se realizarán mediante la publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

